

**OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA.  
FORU SOZIETATE PUBLIKOAN SEGURTASUN ANALISTAREN  
LANPOSTU BAT (ARAUDI AHOLKULARITZAKO PROFILA)  
BETETZEKO HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK**

**(deialdiaren kodea: 2023002)**

**LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:**

Antolakuntza eta Zerbitzuen Atalean sartuko da, proiektuaren burutzaren eta, aldi berean, ataleko arduradunaren mende.

AKSAn egiten duen lanbide jardueran hainbat eginkizun bete beharko ditu. Hasierako eginkizunak honako hauek izango dira:

- Arriskuen analisia egiteko lankidetzan aritzea.
- Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistemen (ISKS) auditoria eta jarraipena.
- Informatika segurtasunaren printzipioei buruzko analisia.
- Informazioaren segurtasunaren arloan aplikatzekoa den legezko araudiaren analisia eta auditoria.
- Jarraitutasun eta kontingentzia planak mantentzea.

Geroago, segurtasuna analistaren beste eginkizun batzuk gauzatu ahal izango ditu, besteak beste:

- Sistema eragileen, datu baseen eta komunikazio sareen segurtasun ezaugarrien analisia eta aholkularitza egungo azpiegituran.
- Informazio sistemak ezartzeko segurtasun eskakizunen analisia eta definizioa.
- Merkatuko segurtasun tresnen administrazioa eta aholkularitza irismen funtzional mugatuetan.
- Segurtasun fisikoko sistemak administratzea.

**BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:**

Hautagaiek posta elektronikoz [2023002@qualisconsultores.es](mailto:2023002@qualisconsultores.es) helbidera bidali beharko dituzte oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen diren agiriak (bidali beharreko mezuak

30 MB baino gehiago baditu, hainbat mezu bidali beharko dira, onartutako muga gainditu gabe haietako batean ere).

**Eskaerak aurkezteko epea 2023ko maiatzaren 19an amaituko da.**

#### **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:**

- Informatikako Goi Mailako Ingeniaritza edo Informatikako Lizentziatura edo Telekomunikazioetako Goi Mailako Ingeniaritza edo gradu baliokidea.
- Goi mailako beste ingeniaritza batzuk, Fisikako edo Matematiketako lizentziaturak edo gradu baliokideak.

#### **LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:**

Ariketak edo probak deialdi bakarreko sistemaren arabera eginez gero, edo hautagaiak bertaratzea eskatzen duten beste ekintza batzuk izanez gero, haurdunaldia, erditzea edo edoskitzea, behar bezala egiaztatuta, arrazoi izan daitezke ekitaldia egiteko denboraren eta/edo lekuaren inguruabarrak aldatzea justifikatzeko.

Aldaketa eskaerei erantzuteak berekin ekarriko du hautagai guztien lehia berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa neurriak ezartzea.

#### **1. FASEA: JAKINTZA ESPEZIFIKOAREN EBALUAZIOA:**

**Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa izango da (GAI – EZ GAI).**

- Ezaupideak:
  1. Arriskuen analisisa, BIA, kontingentzia planak, negozioaren jarraitutasun planak.
  2. Informazioaren segurtasunarekin lotutako legeria, bereziki administrazio publikoei dagokiena.
  3. Informazioaren segurtasunarekin lotutako nazioarteko estandarrak.
  4. Informazioaren segurtasuneko tresnei buruzko oinarritzko ezagupenak.
  5. Enpresa produktu ohikoenetan (sistema eragileak, datu baseak, web zerbitzariak, sareak eta komunikazioak, etab.) segurtasun neurriak konfiguratu eta ezartzea.
  6. Gailu, produktu, sistema eragileen segurtasun logak aztertzea.
  7. Egiaztapen eta sinadura elektronikoko zerbitzuak ematea.

**Adierazitako batetik laurako ezagutza espezifikoetako bi, gutxienez, egiaztatu behar dira zinpeko adierazpen bidez.**

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

## **2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (30 puntu, geh.):**

### **A) Titulazioak (9 puntu, gehienez):**

- Telekomunikazioetako Goi Mailako Ingeniaritza edo Informatikako Goi Mailako Ingeniaritza edo Informatikako Lizentziatura edo gradu baliokidea: 7 puntu.
- Goi mailako beste ingeniaritza batzuk, Fisikako edo Matematikako lizentziaturak edo gradu baliokideak: 5 puntu.
- Zibersegurtasuneko masterra, gutxienez 60 ECTS kreditukoa: 2 puntu.
- Unibertsitateko aditua edo unibertsitateen zibersegurtasuneko titulu propioak, gutxienez 15 ECTS kreditukoak: puntu 1.

Lehenengo bi atalek elkar baztertzen dute; alegia, “Telekomunikazioetako Goi Mailako Ingeniaritza edo Informatikako Goi Mailako Ingeniaritza edo Informatikako Lizentziatura edo gradu baliokidea: 7 puntu” zenbatuko dira, edo “Goi mailako beste ingeniaritza batzuk, Fisikako edo Matematikako lizentziaturak edo gradu baliokideak: 5 puntu”. Ez dira inolaz ere batuko bi ataletako puntuak.

Hirugarren eta laugarren atalek (2 puntu eta puntu 1, hurrenez hurren) elkar baztertzen dute.

### **B) Hitzaldi, ikastaro eta abarretan hizlari aritzea (puntu 1, gehienez):**

- Segurtasunari buruzko hitzaldi, ikastaro etab. publikoetan (hainbat enpresarentzako) hizlari aritu izana egiaztatzea. 0,1 puntu 2 orduko (ez dira onartuko antzeko edukia duten hitzaldi, ikastaro eta abarrak).

### **C) Hizkuntzak (4 puntu, gehienez):**

#### **B.1) Hizkuntza: Euskara (2 puntu, gehienez):**

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,5 puntu.**

- B2: **1 puntu.**
- C1: **1,5 puntu.**
- C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

**B.2) Hizkuntza: Ingelesa (2 puntu, gehienez):**

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,5 puntu.**
  - B2: **1 puntu.**
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

**D) Esperientzia (16 puntu, gehienez):**

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidezko egiaztapena.

Bi urtetik gorako esperientzia azken lau urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak dituzten lanpostuetan.	- Oso ondo betetzen du: <b>16 puntu.</b> - Nahiko ondo betetzen du: <b>12 puntu.</b> - Ondo betetzen du: <b>8 puntu.</b> - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: <b>4 puntu.</b> - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: <b>0 puntu.</b>
Urtebete baino gehiagoko esperientzia azken lau urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako hasierako eginkizunak dituzten lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	- Oso ondo betetzen du: <b>16 puntu.</b> - Nahiko ondo betetzen du: <b>12 puntu.</b> - Ondo betetzen du: <b>8 puntu.</b> - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: <b>4 puntu.</b> - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: <b>0 puntu.</b>

Balorazioa egiteko:

Honako balorazio hau emango da...	...baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako hasierako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso ondo betetzen du	100 %
Nahiko ondo betetzen du	% 66 > eta % 100 <
Ondo betetzen du	% 33 > eta % 66 <=
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	% 0 > eta % 33 <=
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka	0%

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatiko eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.

### **3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO PROBA PSIKOMETRIKOA:**

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa** izango da **(GAI – EZ GAI)**.
- Probak egingo zaizkie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
- Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat igorriko du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
- Gaitzat jotzen diren hautagaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Inor EZ GAI gertatzekotan, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4. fasera) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

Fase honetan, besteak beste, oinarrizko ezagutza proba bat egingo da. Proba horretan, idatziz erantzun beharko zaio, ezarritako epean, aukeran hainbat erantzun dituen galdera sorta bati.

Ariketa hau zuzentzean, erantzun zuzenen kopuruari akatsen kopuruaren heren bat kenduko zaio ( $E = Z-A/3$ ). Erantzun gabeko galderak ez dute zigorrik izango. Azken balioespena ehunenetan moztuko da.<sup>12</sup>

Balorazioa **GAI** izango da idatzizko proban 5 puntu edo gehiago lortu eta fase honetako gainerako probetan gai izan direnentzat.

Balorazioa **EZ GAI** izango da idatzizko proban 5 puntu baino gutxiago lortu edota fase honetako gainerako probetan ez gai izan direnentzat.

#### **4. FASEA: GAITASUNEI ETA GAITASUN TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (20 puntu, geh.):**

- **Nahitaezkoa** da.
- 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsonen eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie elkarrizketa pertsonala.
- Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak.
- Elkarrizketak bi zati ditu:
  - **Gaitasunena:** Elkarrizketa honetan honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (10 puntu, gehienez)
    - Taldean lan egiteko gaitasuna
    - Presiopean lan egiteko gaitasuna
    - Komunikazio gaitasuna
    - Autonomia eta inizatiba
    - Inplikazioa lanarekinFase honetako puntuazioa izango da eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura:
    - Gaitasunik ez: 0 puntu
    - Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: 0,5 puntu
    - Gaitasuna garatzeko fasean: puntu 1
    - Gaitasun maila aurreratua: 1,5 puntu
    - Gaitasun maila bikaina: 2 puntu.
  - **Teknikoa:** Elkarrizketa honetan, honako ezagutza hauek balioetsiko dira: (10 puntu, gehienez)

---

V= ariketen balorazioa, A= ondo erantzundako galderak, E = gaizki erantzundako galderak.  
Moztea da hamarrenak ezabatzea borobiltzerik gabe, hamarren jakin batetik aurrera. AKGSAREN kasuan, bigarren hamarrena da hori. Esate baterako, 4,171 eta 4,179 moztean, 4,17 jartzen da.

- Arriskuen analisia, BIA, kontingentzia planak, negozioaren jarraitutasun planak: 3,25 puntu, gehienez
- Informazioaren segurtasunarekin lotutako legeria administrazio publikoetan: 3 puntu, gehienez
- Informazioaren segurtasunarekin lotutako nazioarteko estandarrak: 2 puntu, gehienez
- Informazioaren segurtasunarekin lotutako tresnak: 1 puntu, gehienez
- Sistema eragileen (Microsoft, Linux) segurtasuna: 2,5 puntu, gehienez
- Sareen eta komunikazioen segurtasuna: 2,5 puntu, gehienez
- Egiaztapen eta sinadura elektronikoko zerbitzuak: 2,5 puntu, gehienez
- Gaitasunei eta gaitasun teknikoari buruzko elkarrizketaren akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketa epaimahaiko kide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Gutxieneko atalase hauek ezartzen dira:
  - Gaitasunen zatia: 5 puntu.
  - Zati teknikoa: 5 puntu.
- Lau hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxieneko atalaseetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonak jarraituko dute.
- Fase hori amaitu ondoren gai diren pertsonak hiru baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak hurrengo hautagaira edo hautagaietara joko du, gai diren gutxienez hiru hautagai izan arte.

**FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:**

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
EG/G	30	EG/G	20	50